



OPEN
ITINERA

www.figbilbao.com

ERAKUSKETA / EXPOSICIÓN
OPEN ITINERA 2020





PAPER ARTE ETA
GRABATUAREN
NAZIOARTEKO
JAIALDIA

FESTIVAL
INTERNACIONAL
DE GRABADO Y
ARTE SOBRE PAPEL

INTERNATIONAL
PRINT & ART WORKS
ON PAPER ART
FESTIVAL

Proyecto:



Colabora:



Actividad subvencionada por la Diputación Foral de Bizkaia
Bizkaiku Foru Aldundiak babestutako ekintza



Barakaldo
CIUDAD · HIRIA

Presidente FIG BILBAO
Iñaki Alonso Gorostiza

Director Open Porfolio
David Arteagoitia García

Directora Proyección
Eugenia Griffero Fabre

Coordinadora general
Olga Iradier Arce

Producción
Ana Giménez Orcajada

Comunicación
Cristina González Barrios
Sonsoles Zubeldia López

Director montaje
Javier Goitia Arrola

Fotografía
Jose Luis Revuelta
David Hornback

Talleres
Irati Retolaza Rubio

FIG BILBAO
T. +34 94 453 86 80
E. openportfolio@figbilbao.com
W. figbilbao.com

Arthazi
Asociación
promoción del arte



ARENATZarte
Enkarterri Kalea, 5, 48840
Gueñes, Bizkaia



ZELAIETA ZENTROA
Zelaieta Parkea, s/n,
48340 Amorebieta-Etxano



CENTRO CÍVICO CLARA
CAMPOAMOR
Gernikako Arbola Etorbidea,
41, 48902 Barakaldo, Bizkaia

ERAKUSKE-
TAK EXPOSI-
CIONES

FIG BILBAO

PAPER GAINEKO ARTEAREN ETA GRABATUAREN
NAZIOARTEKO JAIALDIA

FIG Bilbao, Paper gaineko Artearen eta Grabatuaren Nazioarteko Jaialdia, proiektu sendoa da, estampa garaikidea sustatzeko asmoz orain dela bederatzirte sortua.

Jaialdiaren helburu nagusietako bat da arlo grafikoaren talentu berrien lana babestea eta ikusaraztea. Hori dela eta, duela sei urte, Open Portfolio programa sortu zen, eta, alde aurreko hautaketa baten ondoren, Estatuko eta nazioarteko 32 artistak beren lanak jartzeko eta erakusteko aukera izan zuten, gune profesional batean eta jendearekin harreman zuzenean. Agertzen ari diren sortzaileak sustatzeko, ezagutzera emateko eta profesionalizatzeko plataforma bat da programa, eta dagoeneko 150 artista baino gehiago igaro dira bertatik.

Sortzen ari den grabatuaren topagunea da jaialdia, eta artistei aukera ematen die jendearekin elkarreraginean aritzeko, artelanak erakusteko eta lanak arrazoizko prezioan eskaintzeko. Edizio bakoitzak bi deialdi desberdin ditu, gero eta artista gehiagok parte har dezaten hautaketa-prozesuan. Hautatutako grabatzaileen artean, epaimahai espezializatu batek egonaldi bat emango du CIEC Fundazioan, hain zuzen, arte grafikoaren prestakuntza eta sustapenean nazioarteko erreferentzia den Betanzosko (Coruña) Estampa Garaikideko Nazioarteko Zentroan.

Horren ondoren, artista horiek orain aurkezten dugun Open Portfolio Itinera erakusketetan parte hartuko dute. Programa honen helburua da arte garaikidea eta, bereziki, grabatua sustatzea; Euskadin zabaltzea dadin hauspotzea, hainbat udalerritako erakusketa-aretoen eta kultura-zentron bidez. Horrela, Jaialdia modu didaktikoan eta pertsonalizatuan hurbilduko da bertako ikusleengana, Open Itinera osatzeko, grabatu-tekniketan hasteko tailerrak eta bisita gidatu iruzkinduak egingo baitira, diskurtso grafiko garaikideak tokian bertan ikusteko.

FIG BILBAO


FESTIVAL INTERNACIONAL DE GRABADO
Y ARTE SOBRE PAPEL

FIG Bilbao, Festival Internacional de Grabado y Arte sobre Papel, es un proyecto consolidado que surgió hace nueve años con el firme propósito de promocionar la estampa contemporánea.

Dentro del festival, uno de los objetivos principales es apoyar y dar visibilidad a la obra de los nuevos talentos de la gráfica. Por este motivo, hace seis años, nace el programa Open Portfolio, donde tras una selección previa se da la oportunidad a 32 artistas nacionales e internacionales de exponer y mostrar sus obras en un espacio profesional y en contacto directo con el público. El programa es una plataforma de promoción, difusión y profesionalización de creadores emergentes, por la que han pasado ya más de 150 artistas.

El certamen es un punto de encuentro del grabado emergente, permitiendo a los artistas interactuar con el público, exhibir sus obras y ofrecer sus trabajos a precios asequibles. Cada edición cuenta con dos convocatorias diferenciadas para dar cabida al cada vez mayor número de artistas que quieren participar en el proceso de selección. Entre los grabadores seleccionados, un jurado especializado concede una residencia en la Fundación CIEC, Centro Internacional de Estampa Contemporánea, de Betanzos (La Coruña), centro de referencia internacional en la formación y promoción del arte gráfico.

Posteriormente estos artistas forman parte de las exposiciones Open Portfolio Itinera que ahora se presentamos. La finalidad de este programa es promover el arte contemporáneo y en especial el grabado; fomentar su difusión dentro de Euskadi a través de salas de exposiciones y centros culturales de diferentes municipios. De esta manera, es el Festival el que se acerca al público local de una forma didáctica y personalizada, ya que Open Itinera se complementa con talleres de iniciación a las distintas técnicas de grabado y una visita guiada comentada para observar in situ los diferentes discursos gráficos contemporáneos.



OPEN PORTFOLIO

ARTISTA GAZTEAK
SUSTATZEKO PROIEKTUA



DAVID ARTEAGOITIA
Open Portfolio zuzendaria

OPEN ITINERA 2020

Ikuspegi global berria gaur egungo grabatuan

2020an, Open Itineraren bigarren edizioa egingo dugu, Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza ugari izan dituen erakusketa-programa, helburu sendoarekin sortua: azaltzen ari den obra grafikoa zabaltzeko lana sustatzea eta indartzea, 2012an ateak ireki genituenetik Open Portfolion eta FIG Bilbao Paper gaineko Artearen eta Grabatuaren Nazioarteko Jaialdian egiten ari garena. Urte hauetan, Bilbo ezinbesteko erreferente bihurtu da nazioarteko panoraman, artea eta inprimatutako lanaren kultura maite duten guztientzat.

Gure hiria, berriz ere, esparru ezin hobea da arlo grafikoarentzat; sortzaileek eta ikusleek aurrez aurre ezagutzeko, elkarrizketan aritzeko eta grabatuaren esparruan lan egiten duten artista garaikideen obrari lehen eskutik heldu ahal izateko hitzordua. Zalantzarik gabe, aukera bikaina da modernitatea eta tradizioa batzen dituen jaialdi paregabe honetaz gozatzeko. Edizio berri bakoitzean bere burua berriz asmatzen du, zorionez ikusgai ditugun estanpen azaletan, etengabe hazten ari den proiektuaren giltzarri diren erakusketa bakoitzean.

Oraingo honetan, Open Portfolion ia ehun artista bilduko dira, munduko txoko guztietatik Bilbora etorriak. Mexiko, Polonia, Taiwan, Bulgaria, Txekiar Errepublika, Italia eta Portugal dira, besteak beste, proposamenik berrien jatorrizko herrialdeak, Open Portfolion Euskal Herriko eta Espainiako gainerako lurraldeetako artisten lanarekin bilduko direnak, beren sorkuntza-lanekin gure gogo pizteko.

Hori guztia gauzatu ahal izan dugu, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Arthazi Promoción de Artek urtez urte emandako laguntzari eta konfiantzari esker. Lankidetzaren sinergiko hori indartu egin da edizio honetan, Bizkaiko kulturarako funtsezkoak diren erakundeak baitaude, hala nola Durangoko Arte eta Historia Museoa, Gueñesko kontzejua eta Barakaldo hiria, beren erakusketa-espazioak ireki baitizkiote arlo grafiko garaikideari.

Open Itinerak, proiektu komun gisa, aukera ematen du gure lurraldean honelako ekitaldi bat egiteko, besteak beste, Open Portfolioren urteko bi edizioetako parte-hartzaileen eta azaroan Euskalduna Jauregian egindako FIG Bilbao azokan parte hartutako finalisten piezen auke-

DAVID ARTEAGOITIA
Director Open Portfolio

OPEN ITINERA 2020

Una nueva perspectiva global en el grabado contemporáneo

Este año 2020 celebramos la segunda edición de Open Itinera, un programa de exposiciones con múltiples sedes en el territorio de la Comunidad Autónoma Vasca que surge con el firme propósito de apoyar y potenciar aún más la labor de difusión de la obra gráfica emergente que desde el Open Portfolio y el FIG Bilbao Festival Internacional de Grabado y Arte sobre Papel venimos haciendo desde que en 2012 abriéramos nuestras puertas al público. Unos años que han convertido a Bilbao en un referente imprescindible en el panorama internacional para todos los amantes del Arte y la cultura de la obra impresa.

Nuestra ciudad se convierte una vez más en un marco inmejorable para la gráfica; una cita para que creadores y público puedan conocerse cara a cara, dialogar y tener acceso de primera mano al trabajo de los artistas más contemporáneos que desarrollan su obra en el ámbito del grabado. Sin duda una gran oportunidad para disfrutar de este medio único que aúna modernidad y tradición, y que se reinventa edición a edición en la superficie de las estampas que tenemos la suerte de poder contemplar en cada una de las exposiciones que sirven como piedra angular para un proyecto que no para de crecer.

En esta ocasión concurren al Open Portfolio casi un centenar de artistas llegados a Bilbao desde todos los rincones del mundo. México, Polonia, Taiwán, Bulgaria, República Checa, Italia o Portugal son algunos de los países de procedencia de las propuestas más actuales que conviven en el Open Portfolio con el trabajo de artistas locales que desde Euskal Herria y el resto del territorio nacional nos estimulan con sus creaciones.

Todo esto es posible gracias al apoyo y confianza que desde Diputación Foral de Bizkaia y Arthazi Promoción de Arte nos reiteran año tras año, una colaboración sinérgica que en esta edición viene reforzada por la presencia de instituciones clave para la cultura de Bizkaia como son el Museo de Arte e Historia de Durango, el Concejo de Gueñes y Barakaldo Ciudad-Hiria que han abierto sus espacios expositivos a la gráfica más actual.

raketa zaindu baten erakusketa batekin. Programan, erakusketen bisita gidatuen ziklo bat dago, arteko profesionalen begirada bat, aretoan aurkeztutako lana sakonago ikusi ahal izateko, artista bakoitzaren mintzairara iristeko, lan egiteko erabilitako teknikak ezagutzeko eta erakusketa osoaren hari gidaria ulertzeko.

Artistaren eta publikoaren arteko harreman zuzena da Open Portfolioren ezaugarrietako bat, bi errealitateen arteko mugak lausotzen dituena. Erakusketetan artistak egotea izan da giltzarrietako bat, bisitaria bere aurrean zabaltzen den obrara hurbiltzeko, konplexutasun osoan erakusten baita sortzailearen eskutik.

Filosofia hori indarrean egongo da egingo diren erakusketetan (ARENATZarten, Gueñesko aire zabaleko museoan, Amorebieta-Etxanoko Zelaieta erakusketa-aretoan eta Barakaldoko Clara Campoamor gizarte-etxean), erakusketekin batera antolatutako grabatu-tailerren zikloari esker. Aukera paregabea da, bai helduentzat bai haurrentzat, lanen sorburua den ingurunea ezagutzeko, teknika, tresna, hizkuntza eta materialekin esperimintatzeko, eta esperientziak are gehiago gozatzeko. Hori guztia, Open Portfolioren aurreko edizioetan parte hartu duten eta estampa bakoitzaren atzean dagoen historia ezagutzen duten bertako artistek gidatuta.

Erakusketak grabatuak duen indarra eta gaurkotasuna azaltzen du. Artista bakoitzaren diskurtsoan etengabe berritzen den hizkuntza da, eta teknikoki garatzen da hainbat eta hainbat prestakuntza-zentrotan, lantegitan, galeriatan, museotan, arte-fakultatetan egindako prozedura, tresna eta material berrien bidezko ikerketari esker. Erakundeen, artisten, teknikarien

Open Itinera como proyecto común hace posible acoger en nuestro territorio un evento que incluye exposiciones de una cuidada selección de piezas entre las participantes en las dos ediciones anuales del Open Portfolio así como de los finalistas que exhiben su obra en la Feria FIG Bilbao celebrada en noviembre en el Palacio Euskalduna. El programa incluye un ciclo de visitas guiadas a las diferentes muestras, una mirada de la mano de profesionales del Arte que nos permite apreciar en mayor profundidad la obra presentada en la sala, acceder al lenguaje propio de cada artista, conocer las técnicas empleadas en la realización de su obra y comprender el hilo conductor de toda la exposición.

El contacto directo entre artista y público que desdibuja las fronteras entre ambas realidades es una de las señas de identidad del Open Portfolio. La presencia de los artistas en las exposiciones ha sido una de las claves que facilitan el acercamiento del visitante a la obra que se despliega ante él y se muestra en toda su complejidad de la mano de su creador.

Esta filosofía se mantiene vigente a lo largo del recorrido de las diferentes exposiciones que tendrán lugar en ARENATZarte, el Museo al aire libre de Güeñes, la Sala de Exposiciones Zelaieta de Amorebieta-Etxano y el Centro Cívico Clara Campoamor de Barakaldo gracias al ciclo de talleres de grabado que se organizan de forma paralela a las muestras. Se trata de una oportunidad única tanto para adultos como para niños de conocer el medio en que las obras fueron creadas, experimentar con las técnicas, herramientas, lenguajes y materiales, y poder disfrutar aún más si cabe la experiencia. Todo esto guiados por artistas locales que han participado en ediciones anteriores del Open Portfolio y que son conocedores de la historia que se esconde detrás de cada estampa.



eta editoreen arteko lankidetzak arrakasta izan behar duen formula bat da. Arlo grafikoari eskainitako espazio bakoitza mundu osoko sortzaileen arteko lotura bat da, eta testuinguru horretan sortzen, elikatzen eta ospatzen da urtero Open Itinera erakusketa.

Esku artean duzun katalogoak Open Portfolioren bi edizioetan aurkeztu ziren ia berrehun artisten artean hautatutako hogeita hamaika artistaren lana biltzen du. Hainbat nazionalitatetako adin-mugarik gabeko artista berriak beren sorkuntzarik berrienekin lehiatzen dira. Bakoitzak bere ahotsa du, eta hitz egiten digute kultura-testuinguru desberdinez, ingurunez, bizipenez, sentimenduez eta bisitariari eskaintzen zaizkien gogoeta bakanez.

Zaragozatik Alba Lorenteren lanak iritsi zaizkigu. Artista gazte honek beltzez tindatutako takoi xilografikoak erabiltzen ditu, osagai eskultoriko handiz kargatuak, tailuan erabilitako gubien keinua nabarmentzeko. Irudia suntsitzeko/eraikitzeke aldi bereko prozesuari buruz hitz egiten digun obra. Carlos “Zorromonok” formatu handiko oihalen gaineko zurezko grabatuaren erabilera hedatu du site specific instalaziora, eta, hor, espazioak eta estanpak bat egiten dute, ikuslea inguratzen eta lana paperaren mugetatik haratago zabaltzen dute.

Radoslav Kirilovek (Sofia, 1977) punta lehor eta akuaforteen serie bat aurkezten du, konnotazio onirikoz betea, erdi gizaki eta erdi animalia diren pertsonaia fantastikoz betetako mundu batean. Ilustraziotik hurbil baina kutsu zinematografikoarekin, Andrea Alonso bilbotarraren lanak ditugu. Gaueko barrualdeez eta itzalez betetako mundu bat irekitzen digu, irudimezkoa eta egunerokoa denaren artean. Edo Elena Carrasco, Afternoon vigil under the table izeneko litografia-seriearekin, non ikuslea berezko unibertso batean murgildu baitaiteke, espazio infinitu batean mugitzen diren eszenekin eta pertsonaiekin.

Lerro goieskorik garbienean, Alejandro Pérez Clotilde artista granadarrak berrikuspen kritiko bat planteatzen du, gizartearen gaitzei buruzko pantomima grotesko gisa (egozentrismoa, ustelkeria, erakundearen gainbehera eta botere-abusua), eta trazadura bikaina eta akuaforteen eta gubilaren teknika ondo menderatzen duela erakusten du. Kontu bera beste toki batzuetan...

Beata Filipowiczek (Polonia, 1992) grabatuaren, pinturaren eta zurezko eskulturaren arteko sintesia eskaintzen digu Body Matrixes lanean, eta gogoeta egiten du mundu organikoaren egiturei, fenomeno naturalei eta artistaren gorputzak bere obran duen presentziari buruz. Celia Márquez artista balearra, berriz, naturara hurbiltzen da, paisaia ikuslearen erretinan eraikitzen duten gouache litografiko iradokitzaileen bidez. Poloniatik Dorota Ziolkowskaren

Una muestra que da fe de la vigencia y actualidad del grabado, un lenguaje que se renueva constantemente en el discurso de cada artista, que evoluciona técnicamente gracias a la investigación con nuevos procedimientos, herramientas y materiales llevados a cabo en innumerables centros de formación, talleres, galerías, museos, facultades de Arte... La colaboración entre instituciones, artistas, técnicos y editores es una fórmula condenada al éxito; cada espacio dedicado a la gráfica constituye un nexo de unión entre creadores de todo el mundo, y en este contexto es donde se crea, nutre y celebra cada año la exposición Open Itinera.

El catálogo que tienes entre las manos recoge el trabajo de treinta y un artistas seleccionados entre los casi doscientos que se presentaron a las dos ediciones del Open Portfolio 2019. Artistas emergentes sin límite de edad de múltiples nacionalidades concursan con sus creaciones más recientes, cada uno con una voz propia que nos habla de contextos culturales distintos, entornos, vivencias, sentimientos y reflexiones únicas que se abren al público visitante.

Desde Zaragoza nos llegan los trabajos de **Alba Lorente**. Una joven artista que emplea tacos xilográficos entintados en negro cargados de un gran componente escultórico para resaltar el gesto de las gubias empleadas en la talla. Una obra que nos hablan del proceso simultáneo de destrucción/construcción de la imagen. **Carlos “Zorromono”** expande el uso del grabado en madera sobre telas en gran formato a la instalación site specific donde el espacio y la estampa se vuelven uno, rodean al espectador y expanden la obra más allá de los límites del papel. **Radoslav Kirilov** (Sofia, 1977) presenta una serie de punta secas y aguafuertes cargada de connotaciones oníricas en un mundo abarrotado de personajes fantásticos mitad hombre mitad animales. También cercanas a la ilustración pero con tintes cinematográficos encontramos las obras de la bilbaína **Andrea Alonso** que nos abre un mundo cargado de sombras e interiores nocturnos a caballo entre lo imaginario y lo cotidiano, o **Elena Carrasco** en su serie de litografías *Afternoon vigil under the table* donde el espectador puede sumergirse en un universo propio de escenas y personajes que se mueven en el espacio infinito.

En la más pura línea goyesca el artista granadino **Alejandro Pérez Clotilde** plantea una revisión crítica a modo de grotesca pantomima de los males de la sociedad demostrando un trazo exquisito y un gran dominio de la técnica del aguafuerte y el buril: egocentrismo, corrupción, decadencia de las instituciones y abuso de poder. *Lo mismo en otras partes...*

Beata Filipowicz (Polonia, 1992) nos ofrece en sus *Body Matrixes* una síntesis entre grabado, pintura y escultura en madera que reflexiona sobre las estructuras del mundo orgánico, los

lana iritsi zaigu; matrizearen erreproduktibilitate polisemikoa erabiltzen du memorian geratzen diren irudiei buruzko gogoeta egiteko, haien indarra eta esanahia ezkutatzen baitituzte gainazalaren azpian, icebergak bezala.

Claudio Lorenzok kolorearen erabilera aztertu du serigrafian, 4 Estaciones porteñas lanean. Omenaldia egiten dio Astor Piazzolari: forma organikoen eta trazuren erritmoek musikari argentinarren oihartzunak ekartzen dituzte. Concha Ruesgak emakumezkoen apaiz-jantziak erabiltzen ditu inprimatze-euskarri gisa; piezan, artistaren beraren gorputzak izuaren eta indarkeriaren berri ematen du. Interes bera du Open Portfolioko proposamen gazteenetako batak: Irati Torreren (Bilbo, 1999) Cadáveres emocionales serieko formatu handiko piezak buruz behera zintzilik dagoen emakume-gorputz biluzi bat erakusten digu, punta lehorreko trazu biribilen bidez forma hartzen duena. Julia R. Gallegoren xilografien muina gorputza da, sexu biologiko, genero, sexualitate eta ugalketari dagokionez. My heart is on fire seriean, grabatutako sexu femenino baten gainjarritako kolore-geruza ugariak plazeraz, balio erlijiosoen eta gatazkan dauden herentzia kulturalen hitz egiten dute.

Isabel Carralero (Madril, 1987) baliabide grafikoa erabiltzen du paisaia garaikidea ikertzeko, iraganeko idazkera baten oroimenez betetako keinu errazen bidez. Irudia osatzen duten eta ingurumen-arazoak islatzen dituzten geruzen azterketa. Jakub Honetschlägerren (Praga, 1980) urtinta koloretsuek arkitekturaren eta gizakiak paisaian duen presentziaren sintesia erakusten dute, esperientziatik eta memoria pertsonaletik abiatuta. Naturari buruzko beste ikuspegi bat eskaintzen digu Jesús Mateos Break (Plasencia, 1982), koloretako akuaforte bikainetan. Animaliekin egindako konposizioak, jarrera behartuetan; batzuetan eraso jotzeko eta beste batzuetan atsedena hartzeko moduan, taxidermiaren eta artearen artean dagoen alkimia egiten duen naturalista batenak, zentzu ironiko handiz kargatuak beti.

Juanjo Ortubia bizkaitarraren lanean beti agertzen da esperimenduzko teknika. Oraingo honetan, carborundum eta monotipia bidez egindako lan batzuk aurkezten dizkigu, eta, haietan, orbanaren koloreak eta adierazkortasunak hartzen dute estapan erdigunea. Lorenzo Davitti italiarraren lanak sakon aztertzen ditu matrizeen konbinazioak dituen aukerak eta irudi anizkoitzen sortzaile gisa berrerabiltzeko modua, marrazkiko trazuren adierazkortasunaren eta espazioa antolatzen duen geometria arrazionalaren arteko oreka bilatuz.

Lucía Moyaren xilografiek (Castellón de la Plana, 1988) argi- eta itzal-joko sotil bat eskaintzen digute, batzuetan paperetik haratago hedatzen dena. Lanean, irudiaren mugei buruz eta

fenómenos naturales y la presencia del cuerpo del artista en su obra, mientras que la artista balear **Celia Márquez** se aproxima a la naturaleza a través de sugerentes aguadas litográficas que construyen el paisaje en la retina del espectador. Desde Polonia nos llega también el trabajo de **Dorota Ziolkowska**; una obra que emplea la reproductibilidad polisémica de la matriz para reflexionar sobre las imágenes remanentes en la memoria, que al igual que el iceberg esconde su fuerza y significado bajo la superficie.

Claudio Lorenzo explora el uso del color en la serigrafía en sus particulares 4 Estaciones porteñas. *Homenaje a Astor Piazzolla* donde las formas orgánicas y los ritmos del trazo traen ecos del músico argentino. **Concha Ruesga** utiliza la vestimenta sacerdotal femenina como soporte de impresión para confeccionar una pieza donde el cuerpo de la propia artista da testimonio del horror y la violencia. Comparte su interés con una de las propuestas más jóvenes del Open Portfolio; la de **Irati Torre** (Bilbao, 1999) que en su pieza de gran formato perteneciente a la serie *Cadáveres emocionales* nos muestra un cuerpo femenino desnudo suspendido cabeza abajo que adquiere su forma a través de los rotundos trazos de la punta seca. El cuerpo en términos de sexo biológico, género, sexualidad y reproducción es el centro de las xilografías de **Julia R. Gallego**. En la serie *My heart is on fire* las múltiples capas de color superpuestas de un sexo femenino grabado nos habla del placer, los valores religiosos y las herencias culturales en conflicto.

Isabel Carralero (Madrid, 1987) emplea el medio gráfico para investigar el paisaje contemporáneo a través de sencillos gestos cargados de reminiscencias de una escritura pasada. Un estudio de las capas que componen la imagen y reflejan la problemática medioambiental. Las coloridas aguatas de **Jakub Honetschläger** (Praga, 1980) muestran una síntesis de arquitectura y presencia humana en el paisaje desde la experiencia y la memoria personal. Otra mirada sobre la naturaleza nos la ofrece **Jesús Mateos Brea** (Plasencia, 1982) en sus exquisitos aguafuertes a color. Composiciones con animales en forzadas posturas, a veces de combate otras de reposo, propias de un naturalista que practica una alquimia entre taxidermia y arte, pero siempre cargadas de un gran sentido irónico.

El vizcaíno **Juanjo Ortubia** desarrolla una obra donde la experimentación técnica está siempre presente, y en esta ocasión nos ofrece una serie de trabajos realizados mediante carborundum y monotipia donde el color y la expresividad de la mancha ocupan el espacio central de sus estampas. El trabajo del italiano **Lorenzo Davitti** explora las posibilidades de la combinación de matrices y su reutilización como generadoras de imágenes múltiples que buscan el equilibrio entre la expresividad del trazo en el dibujo y una geometría racional que ordena el espacio.

espazioa eraikitzeari/suntsitzeari buruz hausnartzen da, paperaren zurian flotatzen duten uharteen moduko piezetan. Maite Pintok (Errioxa, 1993), El Correo/FIG Bilbao sariaren irabazleak, familiaren albuma eta artxibo fotografikoa erabiltzen ditu, eguneroko bizitzako iragan bateko eszenak aurkezteko. Familia-taldean urtintza finek gonbit egiten digute gizarte osoaren oroimen pertsonalean eta kolektiboan bidaiatzera. Gizarte hori desagertu ez bada (hala nola bere konposizioen funtsa), lausotu egin da, beste zerbait bihurtu arte artistaren eskuetan.

Manuel Pradosen Energy proiektuak paisaia monumentalak erakusten ditu, lurraren barruan dagoen alde magmatikora garamatzatenak, sorkuntzaren kaosaren barruko ordena natural batera. Xilografia handi hauetan, argia irudikapeneko haitzuloetan sartzen da, gubiek sortutako hutsuneen bidez.

Bigarren edizio honetan, Mexiko nabarmentzen da, tradizio grafiko luzeko herrialdea baita. Mexiko Hiriko Víctor Hugo Ríos artistak gogoeta egiten du paisaiari, paisaian giza erreferenteak duen presentziari edo, hobeto esanda, absentiari eta espazioaren egiturari buruz. Veracruzeko marmolean egindako litografiek, Desolación izenekoei, beren abstrakzioan, mendiak, karkabak eta sakanak gogorarazten dituzten paisaia monokromatikoak iradokitzen dituzte. Burdinaren gaineko akuaforte eta urtintetan, orban solteak lerro bat sortzen du, geometria utopikoak eraikitzen dituen horizonte krakelatuetan, artista emankor honen seriea handituz.

Haren herrikide Manuel Solísek (Mexiko Hiria, 1985) genero edo herrialdeetatik kanpo gizartearen sortzen den eguneroko indarkeriaren irudien kontsumoa du ardatz. Keinu piranesiar batean, Manuelek erakusten dizkigun akuaforte eta urtinten serieetan, begietara zuzenean begiratzen diguten aurpegiak (batez ere emakumeenak) beltzean urtzen dira pixkanaka, desagertu arte.

María Luisa Estradak (Mexiko Hiria, 1983) PVC aparduna eta linolioa lantzen ditu batez ere, eta eraikin nahasiak egiten ditu, artistaren oroimenean, inguruko paisaian eta haren eguneroko testuinguruan hondoratzen direnak. Era berean, linolioa da Triana Parera mexikarrak Las Moscas del Poder seriean aukeratutako baliabidea. Teknika horrek dramatismoa eta ironia hauspotzen ditu, sarkasmoz eta umorez betetako estanpetan; intsektu bihurtzeko metamorfosian errealitatearen zentzugabekeria erakusten duten gizakiak. Marta Muñozek (Mexiko Hiria, 1992) ibileraren estrategia erabiltzen du praktika artistiko gisa. Paisaiaren esplorazioa pentsamendu bihurtzen da, inguruneari buruzko hausnarketa eta espazioaren egituraketa

Las xilografías de **Lucía Moya** (Castellón de la Plana, 1988) nos ofrecen un sutil juego de luces y sombras que en ocasiones se expanden más allá del papel. Un trabajo que reflexiona sobre los límites mismos de la imagen y la construcción/destrucción del espacio en piezas que son como islas que flotan en el blanco del papel. **Maite Pinto** (La Rioja, 1993), ganadora del Premio El Correo/FIG Bilbao, emplea el álbum familiar y el archivo fotográfico para presentarnos escenas de un pasado cotidiano. Sus delicadas aguatinas de grupos familiares nos invitan a viajar en la memoria personal y colectiva de toda una sociedad que si no ha desaparecido, como el fondo de sus composiciones, se ha difuminado hasta convertirse en otra en las manos de la artista.

El proyecto *Energy* de **Manuel Prados** muestra monumentales paisajes que nos remiten a lo que de magmático hay en el interior de la tierra, a un orden natural dentro del caos de la creación. Grandes xilografías donde la luz se cuela en las cavernas de la representación a través de los huecos creados por las gubias.

En esta segunda edición destaca la presencia de México como país con una larga tradición gráfica. **Víctor Hugo Ríos**, artista de Ciudad de México reflexiona sobre el paisaje, la presencia, o mejor dicho ausencia del referente humano en el mismo y la estructura del espacio. Sus litografías sobre mármol veracruzano tituladas *Desolación* sugieren en su abstracción paisajes monocromáticos evocadores de montañas, cárcavas y barrancos. En sus aguafuertes y aguatinas sobre hierro la mancha suelta da paso a una línea que construye geometrías utópicas en horizontes craquelados ampliando la serie de este prolífico artista.

La obra de su compatriota **Manuel Solís** (Ciudad de México, 1985) se centra en el consumo de imágenes de la violencia cotidiana que se cierne sobre la sociedad al margen de géneros o países. En un guiño piranesiano Manuel nos muestra series de aguafuertes y aguatinas donde los rostros (principalmente de mujeres) que nos miran directamente a los ojos se funden progresivamente al negro hasta desaparecer.

María Luisa Estrada (México D.F., 1983) trabaja principalmente el PVC espumado y el linóleo en construcciones de abigarrados urbanismos que se hunden en la memoria de la artista, el paisaje que la rodea y su contexto cotidiano. También es el linóleo el medio elegido por la mexicana **Triana Parera** en su serie *Las Moscas del Poder*. Una técnica que potencia el dramatismo y la ironía en estampas cargadas de sarcasmo y humor; humanos que en su metamorfosis a insecto dan muestra de lo absurdo de la realidad. **Martha Muñoz** (Ciudad de México,

lerroaren bitartez. Lurraldearen esperimentazioaren bidez sortzen du mapa artistak. Construcción del extravío serieko akuaforte indartsuak konpentsatu egiten dira, Asuntos del hogar serieko punta lehorreko trazuaren dotoretasunarekin. Habitatzeari aztarna uztea da.

Sevillan bizi den Mingyi Chou artista taiwandarrak El tiempo seriea aurkezten du. Serigrafia horiek geruza tonalez beteta daude, bata bestearen gainean jarrita eta ezin hobeto egitura-tutako ordenan konbinatuta. Trazutan irekitzen diren kolore-erretikulak eta dotorezia organikoko formak.

Omer Zaballak (Bilbo, 1991) omenaldia egiten die hirigintza modernista sobietarraren aurriari eta gerra-eraikuntzei, xilografia zainduetan, hala nola Hiroshige amanece en Poplavok lanean, non gardentasunak eta koloreak azalera ezin hobea aurkitzen baitute ekialdeko paper finetan.

Paula Huarteren (Agoitz, 1994) REM proiektuan, artistak fotopolimeroa erabiltzen du irudi digitalarekin konbinatuta, ikuslearen psikea lasaitzen eta aldi berean nahasten duten eszenen berezko unibertsoa sortzeko. Exposición Tinta de Verano 2019 erakusketako lanik konplexuenetako bat da, zalantzarik gabe, eta maisutasunez uztartzen ditu estanparen mundu onirikoak eta loza-zeramikazko piezak, natura hil apartak balira bezala.

Irudien egitura eta ikusleak irudien gainean egiten duen interpretazioa da Raquel Serranoren (Huelva, 1995) lanaren muina. Cartografía de una imagen multzo esperimental bat da, plastilina zuriaren gaineko 7 serigrafiaz osatua; gonbit egiten digu gogoeta egiteko testuingurutik kanpo dagoen irudiak esanahi berriak sortzeko duen gaitasunaz.

Sofia Bravo, gaur egun Euskal Herrian bizi den artista portugaldarrak, paisaiaren ikuspegi intimoa aurkezten digu, oroimenera egindako bidaia bat balitz bezala. Nabarduraz eta pintura-sotiltasunez betetako formatu txikiko estampa ilunetan, Sofiak haietan urpean igeri egitera gonbidatzen gaitu, galdu arte. Estampa bakoitzaren titulu diren koordenatu geografikoek leku jakin bat definitzen dute gure munduan, eta, aldi berean, irudi inprimatuak, errealitatearen irudikapen edo asmakizun gisa, kokatu ezin den paisaia oniriko batera eramaten gaitu.

Hogeita hamaika artistek aberasten eta argitzen dituzte hitz horiek beren estanpekin, eta aukera ematen digute ibilbide panoramiko bat egiteko arlo grafikoaren mintzairetan barrena; tradizioaren eta garaikidetasunaren artean kokatzen gaituen berrikuspen eguneratu bat, autore bakoitzaren eskutik.

1992) emplea la estrategia del caminar como práctica artística. La exploración del paisaje se convierte en pensamiento, en reflexión del entorno y estructuración del espacio a través de la línea. La artista crea el mapa a través de la experimentación del territorio. Sus potentes aguafuertes de *Construcción del extravío* se compensan en la elegancia del trazo a la punta seca de la serie *Asuntos del hogar*. Habitar es dejar huella.

El artista taiwanés afincado en Sevilla **Mingyi Chou** presenta su serie *El tiempo*, un conjunto de serigrafías repletas de capas tonales que se superponen y combinan en un orden perfectamente estructurado. Retículas de color que se abren a trazos y formas de elegancia orgánica. **Omer Zaballa** (Bilbao, 1991) rinde homenaje a las ruinas de construcciones bélicas y del urbanismo modernista soviético en cuidadas xilografías como *Hiroshige amanece en Poplavok* donde la transparencia y el color encuentran una superficie ideal en los delicados papeles orientales.

REM de **Paula Huarte** (Aoiz, 1994) es un proyecto donde la artista se vale del fotopolímero combinado con la imagen digital para crear un universo propio de escenas que tranquilizan a la vez que perturban la psique del espectador. *Exposición Tinta de Verano 2019* es sin duda una de las obras más complejas de toda la muestra donde combina magistralmente el mundo onírico de la estampa con piezas de cerámica de loza a modo de exquisitas naturalezas muertas.

La estructura de las imágenes y la interpretación que el espectador hace de las mismas es el centro de la obra de **Raquel Serrano** (Huelva, 1995). *Cartografía de una imagen* es un conjunto experimental de 7 serigrafías sobre plastilina blanca que nos invita a reflexionar sobre la capacidad de la imagen descontextualizada para generar una mirada de nuevos significados. **Sofia Bravo**, artista portuguesa que actualmente estudia y reside en el País Vasco, nos presenta una visión íntima del paisaje como si de un viaje a la memoria se tratase. En oscuras estampas de pequeño formato cargadas de matices y sutilezas pictóricas, Sofia nos invita a bucear en ellas hasta perdernos. Las coordenadas geográficas que titulan cada una de las estampas definen un lugar concreto en nuestro mundo al mismo tiempo que la imagen impresa como representación o invención de la realidad nos remite a un paisaje onírico imposible de ubicar.

Treinta y un artistas enriquecen e iluminan estas palabras con sus estampas dándonos la oportunidad de realizar un recorrido panorámico por los lenguajes de la gráfica, una revisión

Lerro iluneko akuaforteak eta punta lehor belusatuak, zuraren zuntzak naturako oihartzuak eta hura zauritzen duen gubiaren indarkeria islatzen dituen xilografiak, gouacheetan eta marrazkiaren trazu iheskorretan desegiten diren litografiak, paperaren gainazala kolore distiratsuarekin bustitzen duten serigrafiak edo artistaren lana gaur egungo arlo grafikoko esperimentazio- eta sortze-prozesuetan arestian sartutako teknologekin lotzen duten inpresio digitalak. Hori guztia eta askoz gehiago geratzen da orrialde hauetatik kanpo, eta aldi berean bere ahotsa aurkitzen du estampa bakoitzaren azalean.

Open Itinerak beste edizio batean ospatuko du berriz grabatuaren arloan azaltzen ari den sorkuntzaren egoera ona eta indartsua, grabatuaren adierarik hedatuenean ulertuta. Muga geografikoak, teknikoak edo teorikoak ulertzen ez dituen ingurunea. Eskerrik asko bidalitako proposamenekin jaialdia egiteko aukera ematen duten munduko artista guztiei, oinarri bakarra eta kalitatezkoa ematen duen FIG Bilbao Paper gaineko Artearen eta Grabatuaren Nazioarteko Jaialdiari, eta hura babesten eta hauspotzen duten erakundeei eta pertsoneri. Horiek guztiek ezinbesteko topagune bihurtu dituzte Open Portfolio eta Open Itinera programa, arlo grafikoaren zale guztientzat.

actualizada de la mano de cada uno de los autores que nos coloca a caballo entre la tradición y la contemporaneidad.

Aguafuertes de línea oscura y aterciopeladas puntas secas, xilografías donde la fibra de la madera trae ecos de la naturaleza y la violencia de la gubia que la hiere, litografías que se deshacen en aguadas y trazos evanescentes del dibujo, serigrafías que impregnan de brillante color la superficie del papel o impresiones digitales que vinculan el hacer del artista con las tecnologías recientemente incorporadas a los procesos de experimentación y creación en la gráfica actual. Todo esto y mucho más es lo que queda fuera de estas páginas y lo que al mismo tiempo encuentra su voz en la superficie de cada una de las estampas.

Open Itinera celebra una edición más el buen estado y vigencia de la creación emergente en el campo del grabado, entendido este en su sentido más expandido. Un medio que no contempla fronteras geográficas, técnicas o teóricas. Gracias a todos los artistas del mundo que lo hacen posible con cada una de las propuestas que nos hacen llegar, al FIG Bilbao Festival Internacional de Grabado y Arte en Papel que aporta un trasfondo único y de calidad, a las instituciones y personas que lo apoyan y hacen posible. Todos ellos han convertido al Open Portfolio y su programa Open Itinera en un punto de encuentro ineludible para los amantes de la gráfica.

OPEN

OPEN PORTFOLIO

ERAKUSKETA / ARTE GAZTEA / MARKET
SORTZEN ARI DEN LAN GRAFIKOA

EXPOSICIÓN / ARTE JOVEN / MARKET
OBRA GRAFICA EMERGENTE

www.figbilbao.com



PAPER ARTE ETA
GRABATUAREN
NAZIOARTEKO
JAIALDIA

FESTIVAL
INTERNACIONAL
DE GRABADO Y
ARTE SOBRE PAPEL

INTERNATIONAL
PRINTGART UORKS
ON PAPER ART
FESTIVAL



Bizkaia Bilbao

- aleja lorente
- andrea alonso
- beata filipowicz
- carlos ramirez
- celia marquez
- claudio lorenzo
- dorota ziolkowska
- elena carrasco
- isabel carrasco
- irati torre
- isabel honetschlager
- jakub honetschlager
- jesús mateos brea
- juanjo ortubia
- julia r. gallego
- lucía davitti
- lucía moya
- lucía pinto
- maite prados
- manuel estrada
- manuel prados
- maría luisa estrada
- martha muñoz
- mingyi chou
- radoslav kirilov
- omer zaballa
- paola huarte
- raquel serrano
- sofia bravo
- triana parera
- victor ríos

ARTISTAS ARTISTAS ARTISTAS

ALBA LORENTE
Zaragoza



CAMINOS IV
Tinta sobre cartón. 25,5x20 cm.



ALEJANDRO PÉREZ
Granada



Y SI SE GUSTAN
Aguafuerte, buril y graneador en cobre. 24x16 cm.




ANDREA ALONSO
Santander



HABITACIÓN I
Grabado al aguafuerte y aguatinta. 112x70 cm.



BEATA FILIPOWICZ
Polonia



ANDROGYNE
Matriz corporal, huecograbado. 107x76 cm.




ZORROMONO
La Rioja



OSIRIS
Electrografia sobre papel. 75,5x60 cm.




CELIA MÁRQUEZ
Palma de Mallorca



BILIS NEGRA II
Litografía. 25x21 cm.



CLAUDIO LORENZO
Bizkaia



LAS HORAS CANÓNICAS
Serigrafía. 29,7x21 cm.




CONCHA RUESGA
Huesca



EL DISPARO
Fotopolímero



DOROTA ZIOLKOWSKA
Polonia



SERIE II
Linoleograbado. 98,5x69 cm.



ELENA CARRASCO
Madrid



TRES TERCIOS
Litografía. 40x30c m.



IRATI TORRE
Bilbao



LA ESCULTORA
Punta seca. 200x140 cm.



ISABEL CARRALERO
Madrid



LANDSCHAFTEN
Planchas de aluminio modificadas con sulfato de cobre y estampadas. Dimensiones variables.



JAKUB HONETSCHLAGER
Praga




AGUJERO 2
Aguatinta. 16,5x25 cm.



PREMIO
Open Portfolio
2019

JESÚS MATEOS BREA

Cáceres



DASYPUS NOVMCINCTUS
Aguafuerte y barniz blando. 100x70 cm.



JUANJO ORTUBIA

Bizkaia



COLORES DEL AMANEGER
Carborundum y monotipo sobre papel. 116x72 cm.



PREMIO
**Open Portfolio
2019**

JULIA R. GALLEGO
Madrid



CARNAL PORTAL
Xilografía. 60x90 cm.



LORENZO DAVITTI
Italia



LETTERS FROM THE CITY
Monotipo y punta seca. 50x70 cm.



LUCÍA MOYA
Valencia



M/m
Xilografía. 40x35 cm.



MAITE PINTO
Bilbao



DENOMINACIÓN DE ORIGEN
Aguafuerte y aguainta. 80x66 cm.



MANUEL PRADOS

León



THE MOUNTAIN AND THE MOON
Xilografía. 56x76 cm.



MANUEL SOLÍS

México



DESAPARICIÓN
Aguafuerte, aguainta. 59x43 cm.



MARÍA LUISA ESTRADA
México



DERIVA N. 1
Grabado en relieve sobre pvc espumado. 122x78 cm.




MARTHA MUÑOZ
México



CONSTRUCCIÓN DEL EXTRAVÍO I
Aguafuerte con disolvente de polímeros y punta seca/ acrílicos. 120x80 cm.



MINGYI CHOU
Taiwán



SERIE EL TIEMPO
Serigrafía. 85x67 cm.



RADOSLAV KIRILOV
Sofia




WELCOME IN THE JUNGLE
Punta seca sobre la plancha de aluminio con barniz de reserva. 56x76 cm.



OMER ZABALLA

Bilbao



HIROSHIGE AMANECE EN POPLAVOK
Xilografía y punta seca. 100x70 cm.



PAULA HUARTE


Navarra



ESURIIT
Fotopolímero en hueco e impresión digital. 50x70 cm.



RAQUEL SERRANO
Huelva



ESPACIOS IMAGINARIOS
Transferencias superpuestas. 49x70 cm.



SOFÍA BRAVO
Portugal



40° 19' 18.8" N 7° 36' 46.5" O
Aquatinta y Monotipo. 38x28 cm.



TRIANA PARERA

México



COCINANDO, DE LA SERIE "LAS MOSCAS DEL PODER"
Linóleo. 90x60 cm.




VÍCTOR RÍOS

México



CONTEMPLACIÓN III
Aguafuerte y aguatina sobre hierro. 63x73 cm.

OPEN ITINERA 2020
VI EDICION DEL OPEN PORTFOLIO
OPEN PORTFOLIO VI-GARREN EDIZIOA





www.figbilbao.com